

Mallabittar eta ermuarren ekarpena

ASTELENA FRONTOIAK 100 URTE BETE DITXU ZABALDU ZALA. ESKUZKO MODALIDADIAREN KATEDRALA LEGEZ EZAGUTUA IZAN DANAREN IZENA LAU HAIZETARA ZABALTZEKO AHALEGIÑETAN MALLABIA ETA ERMUKO PELOTARI UGARIK ZERIKUSI HAUNDIXA EUKI DABE.

Ez daki inork honi artikuloni aidia emotia zenbat kostau jatan! Nekazen datuak alkar lotu eziñik, senperak eñ ditzut! Maria Txindurri batutako ipuintxo batek emon zotan beste zeozer idazteko ideia: kontatzen dabenez Marino pelotarixa Ameriketara urte mordua eñ ostian Eibarrera bueltan etorri zanian Astelenara jua ei zan. Sartiaz batera txokauta geratu ei zan:

- Renobaziño haundixa ein dozue, motillak! Hamen lehen baiño quadro bat gehixao daok- diño seguru berak

- Ez, begiratik ondo. Lehen beste daoza- bestiak

Ezet eta baietz, posturia jokatu dabe.

- Botaik milla pezetakua goitxik jota Marinok. Ahor ba, galdu dok; han dauana ez euan lehen. Begitxu dabe Marinok esandako lekura eta zer egongo eta... Francoren quadro edarra hormiari lotuta! Posturiori irabazi Marinok.

Mariaren kontakizuna nekala eta zerekin apainduko nebala pentsatzen, Eibarrera jo neban ehungarrenaren gaineko materixal billa. Liburu bat emon zostien, "Frontón Astelena, 1904-2004" Isabel Vidartek frontoiaren gaineko

argazki eta aitzamenekin hornidutakua. Eta ahor ba, hantxe, aurrenen ermuarrak: Cantabria pelotarixa izan zan Astelenaren frontisari estreñeko pelotakadak emon zotsazena, inauguraziño eguneko partida haretan Tacolori nasai irabaziaz. 50 urte beranduagoko ospakizunetan zein agertuko eta primera filan Alejandro Aranburu, gure Droget. Erdixa einda nekan!


100 urte luze pasau dia eta

gure pelotari askok euren onenak emon ditzue bertan, afizionatu zein profesional maillan jokauaz. Batzuk debutau eta ez eben gero aurrera segidu, baiña jendiaren aurreko jokua laga arren be pelotia-kin eta bere munduakin betirako lotuak geratu dia.

Palaz, zestaz, eskuz edo racketiaz jokatuaz ehundik gorako pelotariren izenak batuta dao Mallabia eta Ermua artian; Astelena eskularixen to-

palekua izanda, bertan profesional maillan jokaturakuen izenak batzia eritzi notsan. Buff, egunak emon ditzuraz pelotari zein korredore izandakuen ondoik, zerrendatik kanpo inor geratu ez daixan! Batutako anekdoten artian, batek Astelenara begira ipintzen gaitxu barriro. Kismira haundixa sortu eban harek partidua: Angel Agirregomezkorta Txipu, Felix Izagurre Asto eta Alejandro Aranburu Drogetek Atano III.naren kontra jokatzekotan ziran eta batera batera eurixa hasi zan, ujalka eta Eibarko estalpera jo bihar izan eben. "Mutikuak gu eta akorduan dakat negar be eñ genduala!" esan zotan barriemaillak.

Estibolitz González



Pradera anaiak

Astelena frontoian profesionaletan jokaturako mallabittar eta ermuarrak

Mallabiko Felix Pradera Mallabia I, Baleriano Pradera Mallabia II, Pablo Berasaluze Chiquito Mallabia, Ignacio Artamendi Txakon; Ermuko Bernardo Garate Cantabria, Iñaki Elgea, Ignacio Gorrotxategi Gorrotxa, Jose Antonio Posada Astarloa I, Ismael Posada Astarloa II eta Sallabenteko Santi Agirre.

Feli Garitagoitia Zabala

Uztailaren 7an hil zen, 66 urte zituela

Gure atsekabea eta elkartasuna adierazi nahi dizkiegu haren senide eta lagunei.

Euskal Birusa

